



BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOKO MERKATARITZA BULEGOETAKO ESKUDIRUA GARRAIATZEKO, MANEIAITZEKO ETA SARTZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN PLEGUAREN KARATULA. ESPEDIENTAREN ZK.: 3256

Harmonizatuko araubidearen menpe dagoen kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Irekia eta sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.) ☐ Irekia eta oso sinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☒ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Iker Basagoiti Larruzea
4.- Kontratazioko Zuzendariordetzako harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak: telefono- zk.:94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.eus www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: BBUPko merkataritza-bulegoetako eskudirua garraiatzeko, maneiatzeko eta sartzeko zerbitzuak egikaritzea. 2.- Bete beharreko premiak Eskudirua Bilbo Handiko BBUPren merkataritza-bulegoetatik garraiatzea, maneiatzea eta BBUPk izendatutako banku-kontuan sartzea. Oro har, atal honetan aurretik zehaztutakoekin lotutako zerbitzu guztiak, baita kontratua behar bezala betetzen dela ziurtatzen duten zaintza eta babesa ere. 3.- Lotetan banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Lotetan banatu ez izanaren justifikazioa: Lizitazioaren xedea da kontratu bakarra adjudikatzea zerbitzua lotetan banatu gabe. Izan ere, zerbitzua osatzen duten zereginak —segurtasun-langileen eta ibilgailu blindatuen bidez BBUPren bulegoetan eskudirua jasotzea, ondoren hura maneiatzea eta gaitutako espazioetan zenbatzea, billete faltsuak hautematea eta azkenik BBUPren kontuan dirua sartzea— unitate-zerbitzua osatzen dute, eta zerbitzu hori zatitzea ez da oso praktikoa, kostu handiagoak, atzerapenak, koordinazio-arazoak eta erantzukizunari buruzko zalantzak sortuko baititu. Hori dela eta, lote bakar gisa mantentzeak aukera ematen dio BBUPri baldintza onuragarriagoetan kontratatzeko.
4.- CPV: CPV kodea: 79710000-4 Deskribapena: Segurtasun-zerbitzuak
5.-Aldagaiak edo alternatibak onartzea: ☐ BAI ☒ EZ Onartzeko baldintzak eta aldatu edo aukeratu daitezkeen elementuak:



B.- KONTRATUAREN XEDEA

6.-Izaera juridikoa

☒ Administratiboa ☐ Pribatua

C.-KONTRATUAREN PREZIOA

1.-Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)

**HAMAZORTZI MILA ETA LAUREHUN EURO
(18.400,00 €), BEZ-IK GABE**

2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: HOGEITA HAMAR MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEI (30.360,00 €) euro (SPKLren 309. artikuluan ezarritako % 10eko igoera posiblea barne)

Loteak:

☐ BAI

☒ EZ

3.-Prezioa zehazteko sistema:

☐ Oroharreko prezioa

☒ Aleko prezioak

4.- Urteko kopuruak eta aurrekontu-esleipena:

Kontratuaren urteko aurrekontuak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa hauek dira:

2026 urtea ----- 925.01.22799 partida ----- 4.600,00 €, BEZik gabe

2027 urtea ----- 925.01.22799 partida ----- 9.200,00 €, BEZik gabe

2028 urtea ----- 925.01.22799 partida ----- 4.600,00 €, BEZik gabe

5.-Prezioak berrikustea:

☐ BAI

☒ EZ

6.-Kanpoko funtsekin finantzatzea:

☐ BAI ☒ EZ

7.- Ordaintzeko modua: Hileko ziurtagiriak. Fakturak lantoki bakoitzera benetan egindako bidaiak jaso beharko ditu.

8.- Ordainketak kontura: Ez da aplikatu behar.

D.-KONTRATUAREN EPEA

1.-Gutzizko iraupena: BI (2) URTE

2.- Epe partzialak.

☐ BAI ☒ EZ

3.- Luzapena

☒ BAI ☐ EZ

URTE BATEKO (1) LUZAPEN BAT (1).

4.- Berme-epea: Kontratuaren iraunaldia

5.- Kontratua betetzeko tokia: BBUPren merkataritza-bulegoak

6.- Partzialki jaso daitezkeen lanak ☐ BAI ☒ EZ.



E.- BERMEAK

Behin betiko bermea: % 5 Zenbatekoa: Adjudikazioa
☐ Berme osagarria: Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumenak, aintzat hartuta amaitutako azken hiru urteetan negozio-bolumen handiena izan duen urtea, kontratuaren batez besteko urteko kopurua halako bat izan beharko du gutxienez (9.200,00 €, BEZik gabe).

G.- KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

- Antzeko zerbitzuetan hiru urteko kaudimena egiaztatzea. Kaudimen teknika edo profesionala egiaztatzeko, azken hiru urteetan egindako zerbitzu nagusien (kontratuaren xede direnen berberak edo antzekoak) zerrenda aurkeztu beharko da, eta gauzatze handieneko urtean haien zenbateko metatua urteko kontratuaren urteko bestez besteko kopuruaren % 70 edo gehiago izango da.
- Lapurreta, ebasketa edo kalteengatiko kontingentziak estaltzeko aseguru-poliza nahikoa izatea.
- Alarmak jasotzen dituzten zentral homologatuak izatea.
- Segurtasun-auditoretzak eta barne-ikuskaritzako protokoloak erabiltzea.

☒ Enpresa sortu berrien kaudimen teknika:

Gaitasunean eskatzen den esperientzia ez da kontuan hartuko kasu horietarako. Bai, ordea, gainerako eskakizunak.

BALIABIDEEN ADSKRIPZIOA

- **Ibilgailuek** betekizun hauek bete beharko dituzte:

- III. mailako edo hortik gorako blindajea.
- Konpartimentu bikoitza, sarbide berezituarekin.
- Itxiera elektronikoko eta irekiera atzeratuko sistemak.
- GPS kokapena denbora errealean.
- Komunikazio-sistema erredundantea (irratia + telefono enkriptatua).
- 24/7 grabatzen duten barneko eta kanpoko kamerak.
- Zentralera konektatuta dagoen izu-botoia.

- Zerbitzua ematen duten **langileek**, hau bete beharko dute:

- Funtsak garraiatzeko gaitutako segurtasun-jagoleak.
- Egiaztatutako prestakuntza espezifikoak:
 - o ibilgailu blindatuen erabilera segurua
 - o arrisku-egoeretan jardutea
 - o eskudirua segurtasunez maneiatzea
- Armamentua eramango dute araudiak hala eskatzen duenean.
- Arauzko uniformetasuna eta komunikabide seguruak



LANBIDE-GAIKUNTZA

Barne Ministerioak behar bezala gaituta egotea funtsak garraiatzeko.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, hautazkoa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.

2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen arabera irizpideen dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN MENPEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Irizpide teknikoak baloratzeko beharrezkoa dena.

1.- Antolaketa-proposamena

2.- Zerbitzuari esleitutako bitartekoak

3.- Lanaren jarraipena

ESKAITZA BAZTERTZEKO HUTSEGITE TEKNIKOAK

Baloratuko den dokumentazio teknikoa gehienez 25 orrialdetan aurkeztu beharko da. Orrialde gehiago aurkeztuz gero, ez dira kontuan hartuko balorazioan.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailleak edo bere ordezkariak sinatuta egon beharko da eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da l. eranskineko ereduari jarraikiz. Eskaintako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa izan ezik.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

- a) **Prezioen zerrenda:** Eskaintza ekonomikoa aurkeztu beharko da, kontzeptu fakturagarri bakarrean oinarrituta. Benetan egindako geldialdi bakoitzeko unitate-prezioa eskainiko da, eta bi urterako egindako eskaintza kalkulatu da 400 geldialdirekin biderkatuta (200 geldialdi/urte * 2 urte).

Nº total de paradas (a)	Importe unitario ofertado (b)	Total (a*b)
400		

Behin kontratua adjudikatuta eta zerbitzua ematen hasita, adjudikaziodunak ezin izango dio inolako erreklamaziorik egin BBUPri urte bakoitzean benetan egindako garraio-zerbitzuen



AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEEN BURUZKO DOKUMENTAZIOA

edo eskudirua zenbatekoak taula hauetan ezarritakoa baino txikiagoak izateagatik, eta lana eskaintako prezioetan egitera behartuta egongo da, betiere SPKLn ezarritako mugei lotuta.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzaileraren profilean adierazitakoa
 - 2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (bakarrik administrazio-baldintza berezien pleguaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):
 - 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

☐ Kontratazio-mahaia

☒ Adituen batzardea

Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.
Xabier Orue Moro jauna.
Itziar Zarate Urrutia andrea.
Gerardo Latorre Pedret jauna.
Jose Manuel Pereda Renobales jauna.
Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Idazkaria:
Gerardo Latorre Pedret jauna.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Hauek dira baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK: 49 PUNTU

Irizpide horri dagokionez, gehienez 49 puntu lor daitezke.

Horretarako, jarraian deskribatutako formula matematikoa erabiliko dira, eta horien emaitza K1 koefizientearekin biderkatuko da. Koefizientea honako hau izango da:

$$K1 = 49/50$$

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoarekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira, honela:

Bmax	50 puntu
(Bmax + BM) / 2	48 puntu
BM	47 puntu
0,8 x BM	46 puntu
0,6 x BM	44 puntu



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Lizitazio-aurrekontua..... 0 puntu

Non:

1. Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko diferentziaren emaitza lizitazio-aurrekontuaren artean zatituta eta ehunekotan adierazita.
2. Bmax: Gehieneko baja-ehunekoa, eskaintza ekonomikoenari dagokiona.
3. BM: Batez besteko baja-ehunekoa. Hau da, lizitatzailer bakoitzaren baja-ehunekoen batez besteko aritmetikoaren emaitza.

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa eskuratzeko linealki interpolatuko da aurretik azaldu den puntuen banaketa.

Modu horretan, Bi bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honi dagokiona da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BM$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BM} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BM < Bi \leq 0,8 \times BM$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BM)}{0,2 \times BM} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BM < Bi \leq BM$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BM)}{0,2 \times BM}$$

Baldin eta $BM < Bi \leq (BM + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BM)}{(Bmax - BM)} \times 2$$

Baldin eta $(BM + Bmax) / 2 < Bi \leq Bmax$

$$Pi = 48 + \frac{(2 \times Bi - BM - Bmax)}{(Bmax - BM)} \times 2$$

BALIO-JUDIZIOEN ARABERAKO IRIZPIDEAK 51 PUNTU

1. Antolaketa-proposamena 21 puntu

- Lanaren antolamendua deskribatzea: garraioko segurtasun-neurriak, ibilbideen plangintza, funtsak entregatzeko eta biltzeko prozedura, instalazioetako segurtasun-neurriak, etab.
- Esleitutako banku-kontuan zenbartzeko eta sartzeko prozesua kudeatzea eta gorabeherak ebaztea.
- Enpresa adjudikaziodunaren, finantza-erakundearen eta BBUPren arteko antolaketa-metodoa txkeak entregatzeko eta biltzeko zerbitzuetan eta trukeak eta eskudirua entregatzekoetan.



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

2. Zerbitzuari esleitutako bitartekoak ----- 18 puntu

- Furgonetak eta langileak izatea zerbitzua eman beharko luketenak ordezkatzeko, zerbitzuak gorabeherarik izanez gero.
- Eskudirua tratatzeko erabilitako bitartekoak.
- Eskudirua tratatzeko beste zentroak eskuragarri izatea eta esleitutako zentroarekiko distantzia

3. Lanaren jarraipena ----- 12 puntu

Egindako zereginen jarraipena egiteko proposamena deskribatzea, gutxienez aldizkakotasuna, estatistika- eta gorabehera-txostenak eta abar zehaztuta.

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak aurkezteko epean indarrean daudenak:

- a) Enpresak desgaitasuna duten edota gizarte-bazterketa egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa edukitzea; berdinketaren kasuan, lehentasuna izango dute plantillan desgaitasuna duten langile finko gehiago dutenek edota gizarteratze-egoeran dauden langileen kopuru handiagoa dutenek.
- b) Enpresako langileen artean aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duena.
- c) Enpresako langileen artean emakume enplegatuen ehuneko handiagoa izatea.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Ohi baino baxuagoak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat ohi baino baxuagoa izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzailerik bakarria dagoenean eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino 25 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Bi lizitatzailerik daudenean, beste eskaintzaren aldean 20 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Hiru lizitatzailerik daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoak direnean. Hala eta guztiz ere, batezbestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batezbestekoa baino 10 ehuneko-puntu handiagoa bada eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurritz kanpokotzat joko da aldea 25 ehuneko-puntu baino handiagoa bada.
- Lau lizitatzailerik edo gehiago daudenean aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoa direnean. Dena den, horien artean batez bestekoa 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan gainditzen duten eskaintzak badaude, batezbestekoa kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarria izango da ausarkeria-atalase berria ezartzea eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria hiru eskaintza merkeenekin kalkulatu da.

Talde bereko enpresen eskaintzak aurkeztean badira, baxuegiak izateagatik susmagarriak diren eskaintzak identifikatzeko araubidean, bakar-bakarrik hartuko da kontuan eskaintzarik baxuena, eskaintza banaka edo taldekoak ez diren, baina aldi baterako elkarte gisa jarduten duten beste enpresa edo enpresekin batera aurkeztea gorabehera.

4.- Lizitatzailerik hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezkoa den gutxienerako atalasea:

Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **q puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitakoak.

M.- ZIGOR ESPEZIFIKOAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak.



N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizun-asegurua baduela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Zehazki, SPKLren 309. artikulua arabera, prestazioa behar bezala eman bitartean benetan gauzatutako unitate kopurua soilik aldatzea (kontratuan aurreikusitakoekin alderatuta) ezartzen da; horiek likidazioan jaso ahal izango dira, betiere gastuaren igoera kontratuaren prezioaren % 10 baino handiagoa ez bada. Igoera hori EZ da aldatetatzat hartuko, aipatutako legearen manua arabera.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

- ☐ Hasierako ekarpenaren betebeharra
☒ Azpikontratazioaren mugak

Ezin da zerbitzua azpikontratatu; izan ere, BBUPren datu-baseetan dauden datu pertsonalengatik eta laguntza teknikoan sortutako informazio osagarriagatik (adibidez, banku-enbargoak, nominak, beste erakunde batzuen informazioa...) informazio kritikoa eskuratzea dakarten funtzioak dira.

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

- ☐ BAI
☒ EZ

KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK

Kontratistaren ordezkaria:

Enpresak BBUPrekiko solaskidea izendatu beharko du. Hala, informazioa behar bezala transmititzeko eta zerbitzua emate aldera, solaskideak eguneroko harremana izango du Bezeroekiko Harremanen Sailarekin.

BERARIAZKO KONFIDENTZIALTASUNARI EUSTEKO BETEBEHARRA:

SPKLren 133. artikulua arabera, berariaz konfidentzialtzat jotzen da kontratu honen informazio jakina. Edukian interesa duten lizitatzailleek hura eskuratu ahal izango dute ezarritako legeko betekizunak bete ondoren. Betekizun horien artean, hauek nabarmentzen dira:

- Informazioa isilpean gordetzeko betebeharra
- Konfidentzialtasun-konpromiso indibiduala sinatzea
- Emandako informazio konfidentziala kontratua behar bezala gauzatzeko baino ezin izango da erabili.
- Konfidentzialtasun-betebeharra indarrean egongo da kontratua gauzatzen den bitartean eta amaitu eta bost urtera arte.